


# JUSTIZIAREN MODERNIZAZIORAKO BIDAI ORRIA



**BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA**

[www.poderjudicial.es](http://www.poderjudicial.es)



1

### Bulego Judizial Berria

Bulego Judizial berriaren behin betiko ezarpenak Justiziaren Administrazioaren antolaketa eta funtzionamendu sistema berritzaile bat martxan jartzea suposatu du, gizarte moderno eta aurreratu baten, espainiarra den bezala, beharrezanekin bat datorrena. Hau Legebiltzarrarengatik onartua izan zen, 2003ko Botere Judizialaren Lege Organikoaren erreformaren bidez, eta honek azken belaunaldiko giza baliabide eta baliabide materialen kudeaketa teknikak erabiltzea ahalbidertu du.

2

### Planta eta mugapen judizialaren berregituraketa

Mapa judizial berri bat definitzea beharrezkoa da, espainiar populazioaren ezaugarri demografikoen garapenera egokituta dagoena, organo jurisdikzionalen zenbatekoa, mota eta lurralde banaketa ezarriko dituen, hauekako bakoitzak era zentzudun batean onartu dezaken lan karga kontutan edukita.

3

### Teknologia berrien erabilera (e-Justizia)

Komunikazio eta Informazioko Teknologia (KIT) berriek eskeinitako abantailak inplementatzea Justiziaren Administrazioa hobetzeko helburuarekin, ahalik eta kalitate eta eraginkortasuna handiena duen zerbitzu bat eskeiniz.

4

### Eskubideen Gutuna eta Gardentasun Judizialaren Plana

Hiritarrei eskeinitako zerbitzuaren kalitatea hobetzea, Justizia gardenago, ulergarriago, gizalegezkoago bat lortzeko norabidean beharrezkoak diren neurriak antolatuz, eta pertsona ahulen beharrezan zehatzetara egokitutakoa.

5

### Organo judizialen jardueraren hobetze eta jarraipena

Organo judizialen jardueraren hobetzea bultzatzea, jarduera horren kontrol eta jarraipen egokia ahalbidertzen duten tresnak hobetuz, zerbitzuak eskeintzeko orduan kalitate handiagoa bultzatzeko pizgarriak garatuz, eta bitarteko egoerak hobe tratatzea ahalbidertzen duten mekanismoak ezarriz.

6

### Organo eta prozedura erreformen sustapena

Epaitegi eta Auzitegien erabakiaren menpe gelditzen diren gaien zenbatekoa murrizteko (auzian dena) eta Justiziaren Administrazioaren modernizazio prozesuan aurrera jarraitzeko beharrezkoak diren lege erreforma horien, bai Zuzenbide Organikoaren esparruan zein prozedurazko gaietan, onarpena sustatzea.

### Karrera judizialeko kideen estatutua

Magistratu eta Epaielen estatutua modernizatzea, beraien eskubide eta betebeharrak esparru profesionalean, horrela hiritarren mesedetan funtzio jurisdikzionalaren jarduera (epaitu eta epaitutakoa betearaztea) hobetzea ahalbidertuz.

8

7

### Estatuaren lurralde antolaketa

Gobernu aretoen jarduera indartzea, Justizia Auzitegi Nagusi bakoitzaren lurraldean Botere Judizialaren gobernu organo moduan, Estatuaren lurralde antolaketarekin eta estatutuen aurreikuspenen garapenarekin bat datozen beharrezko egokitzapenak gauzatzuz, eta berezko hizkuntza ofizial duten Autonomia Erkidegoetan hiritarren hizkuntza eskubideak bermatuz.



## Lortu nahi den eraldaketa egi bihurtzeko Legebiltzarrak 14 lege garrantzitsu erreformatu beharko ditu

- Auzipetze Zibilaren Legea: 498 atal.
- Auzipetze Kriminalaren Legea: 194 atal.
- Hipoteka higigarriei eta jabetzaren lekualdaketari gabeko prendei buruzko Legea: 2 atal.
- Estradizio Pasiboaren Legea: 5 atal.
- Aldaketa eta Txekearen Legea: atal 1.
- Panteen Legea: atal 1.
- Askatasun Sexualaren kontrako eta Indarkeria Delituen Biktimei laguntza: atal 1.
- Lan Prozeduraren Legea: 166 atal.
- Dohaineiko Asistentzia Juridikoaren Legea: 5 atal.
- Kontratazioko Baldintza Orokorren Legea: atal 1.
- Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa: 60 atal.
- Lehiaketa Legea: 47 atal.
- Arbitraje Legea: 3 atal.

## Bulego Judizial Berria, Justiziaren Administrazioaren modernizatorako ardatz nagusia



**2003.an** Legebiltzarrak Bulego Judizial Berria ezartzea onartu zuen. Honekin, Justiziaren Administrazioa eguneratu nahi zen, banketxeek, korporazio handiek, enpresa txiki eta ertainek, eta Administrazioek aurreko hogeita hamar urtetan erabilitako teknologia eta antolaketa sistemak barneratuz, horrela eraginkortasuna eta produktibitatea iraganean ezezagunak ziren neurriraino handituz.

Hala ere, ezarpen hau eraginkorra izateko 14 lege prozesal aldatzea beharrezkoa da. Helburu hau **Bulego Judizial Berria Ezartzeko Legedi Prozesalaren Erreformaren Lege Proiektua**-n jasotzen da, orain Gorteetan negoziazio prozesuan dagoena.


Bere aldetik, **BJKN-ak araudi berri bat- Zerbitzu Komun Prozesalaren Homogeneizazioaren araudia**- gauzatzeko ardura dauka, eguneroko bizian Bulego Judizial Berriak bermekin funtzionatzeko aukera izan dezan.

Hurrengo urratsa, agian zailena dena, espazioaren, bulegoen aldaketa, eta giza baliabideen berrantolaketa izango dira, pertsonal hau bere gehiengoan Idazkari Judizialaren zuzendaritzaren pean geldituko dira, azkeneko honek aldi berean izapidetze prozesalaren eskumenak ere jaso ditu, orain epaileen eskuetan dagoena. Hauek beraien funtzio nagusian kontzentratzeko libre geldituko dira: epaitu eta epaitutakoa betearazi.

Alderdiei deitzea, idatzien akats prozesalak konpontzea, alderdi batek besteari aurkeztutako agirien lekualdaketa sustatzea bezalako funtzioak Idazkari Judizialen kontrolpera pasatuko dira. Ministerioari, **Autonomia Erkidegoen Justizia Kontseiluei eta BJKN-ri** makineria berriak ongi funtzionatzeko **koordinazio eta ulermena mantentzea kostatu egiten zaie**.

### Oraingo Bulego Judizialaren oinarrizko antolaketa


**Epaitegi bakoitzaren osaketa:** Epaille 1, Idazkari Judizial 1 eta 7-9 funtzionario



Bulego Judizialaren gaur egungo oinarrizko antolaketa sisteman epaitegiak, egitez, beraien artean deskonektatuta dauden irlak dira. Beraien sorreratik, XIX. mendean, epaile batengatik, idazkari judizial batengatik, eta izaera orokorrek, zazpi eta bederatzita funtzionario artean osatuta daude. Antzinan banketxeetako bulegoetan egiten zen moduan lan egiten dute, zeinetan langile multzo batek bezeroak atenditzen dituen. Gaur egun, kudeaketa horien zati handiena kutxazain automatikoen, Internet edo telefono mugikorren bidez egiten dira

### Bulego Judizial Berria

**Epaitegi bakoitzaren osaketa:** Epaille 1 eta 2 funtzionario, Idazkari Judizial 1 (batzutan, Idazkari Judizialak hainbat Epaitegi atenditzen ahalko ditu)



### Epaitegientzat lanean dauden Zerbitzu Komunik

**Zuzendaritza:** Idazkari Judizialak  
**Osaketa:** 80 funtzionario, gutxi gorabehera

Bulego Judizial Berriak antolatzeko eta lan egiteko eran aldaketa sakon bat suposatzen du. Epaitegietan Epaille laguntzeko unitateak sortzen dira, hauetan beraien zerbitzuak- izaera orokorrek- bi funtzionarioek eskeinitu dituztelarik. Zerbitzu Komunik sortzen dira, hauek epaitegien zerbitzutan lan egiten duten departamentuak direlarik eta Idazkari Judizialengatik zuzenduta daude. Era honetara, teknologia berrien ezarpenarekin konbinatuz, makineria judizialaren funtzionamendua historian inoiz ez bezala azkartu egingo da.

**BJKN-ren Ikuskaritza Zerbitzuko 30 kidek Epaitegi eta Auzitegiak aurkitzen diren egoeraren radiografia oso aurreratuta daukate. Beraien oinarrizko helburua 3.585 organo judizial bakoitzak jaso dezaketen lan zama berriro definitzea da.**

## Planta eta mugapen judizialaren berregituraketa

### Lan Zama

BJKN-ren ikuskarien informazioak organo judizial bakoitzak, gaur egunera era eraginkorrean, jasotzen ahal duen lan kantitatea zehaztasunez ezagutzea ahalbideratuko du.

### Planta Judizial Berria

Jasotako datuek, aldi berean, Espainian behar diren organo judizialen zenbatekoa ezartzea ahalbideratuko du eta Planta Judizial berria berriro definitzen ahalko da, hiritarren beharrezanekin bat datorrena.

Antzematen diren figura berrietako bat plaza zehatzik gabeko Epailearen sorrera da, bitartekotasuneko egoerak betetzeko helburuarekin. "Epaile ibiltari" Justizia Auzitegi Nagusien Lehendakariei esleituak izango lirake.

### Mapa Judizial Berria

Organo judizialen banaketa lurraldean eta organo motengatik, beharrezan berrien arabera.

### PLANTA JUDIZIAL ESPAINIARRA

1988.koa da, urte honetan 38/1988 Legea onartu egin zen, abenduaren 28koa, Mugapen eta Planta Judizialari buruzkoa. Une horretan Espainiak 38.872.268 biztanle zituen. Indarrean egon den 21 urtetan zehar aldaketa puntualak pairatu baditu ere, hauek ez dira gaur egun gizarte espainiarraren beharrezan guztiak asetzeko gai izan, zeina demografiaren hazkunde garrantzitsuagatik dagoeneko 46.157.822 gara, Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera- eta auzitan denaren kopurua handitzeagatik markatuta egon den.


Dagoeneko ez gara ginenak eta dauzkagun baliabideak nahikoak ez direla ikusi da. Guzti honengatik BJKN denbora aurka duelarik organo judizial bakoitzaren lan zama berrikusten ari da, planta judizial berri bat eta mapa judizial berri bat definitzeko helburuarekin- organo judizialen zenbatekoa eta banaketa-. Biek gaur egungo ezaugarri demografikoei erantzun behar diote, organo judizial bakoitzean epaile hauek gauzatzen duten lanaren bidezko banaketa bat ezarri, beraien eskuetan aurkitzen diren kasuen zenbatekoaren eta beraien konplexutasunaren arabera.

# Teknologia berrien erabilera (e-Justizia)

**Hiritarrak**, Justiziaren Administrazioarekin erlazionatzeko, paper bidez egiteko betebeharra dauka. Anakronismo honekin bukatzeko, espediente elektronikoa ezartzeko eta informazio eta komunikazioko tresna teknologiko berriak ezartzeko oso ondo definitutako hiru frentetan aurrera egitea beharrezkoa da:

1. Beharrezkoak diren baliabide materialak ematea.
2. Araudi esparru egokia eta BJKN-ren Bateragarritasun Testa betetzea- Autonomia Erkidegoen eta Justizia Ministerioaren sistema informatikoen "beraien artean hitz egiteko"–.
3. Justiziako aktore ezberdinen artean lankidetzaren egonkorra.

Guzti honekin informazio eta komunikazioko teknologia berriak ezartzea lortuko da, Justiziaren Administrazioaren funtzionamendua hobetzeko, hiritarrei kalitate eta eraginkortasun handiagoko zerbitzu bat eskeintzeko helburuarekin.



**Bere erabileraren derrigortasuna eta gai guztiak parametro berdinak jarraituz erregistratzea.**

## Komunikazioa

Organo judizialen sistema informatiko ezberdinen arteko intereraginkortasuna lortu behar da, bere lana ondo gauzatzeko beharrezkoak diren datuak lortzeko helburuarekin. Bere lana:

- Beste organo judizialekin,
- Beste Administrazio eta erakundeekin (Fiskalia, Polizia, Zerga-Bulegoa, Gizarte Segurantzaren, etab...).

## Espediente Judicial Digitala

- Bulego Judiziala ezartzeko izapideak telematika bidez (paperik gabe) egitea beharrezkoa da. Prozedura judizialean papera ordezkatzean datza.
- Komunikazio elektronikoen (sinadura digitala, SMS, web tresnak...).
- Hiritarrei prozedurazko egintzak baliabide digitalen bidez egiteko eskubidea bermatzea, adibidez, banketxetan gertatzen den moduan.

## Bukaerako helburuak

- Organo judizialek era azkar batean beraien jardura eraginkortasunez gauzatzeko beharrezkoa duten informazio guztia edukitzea lortzea. Azken finean, sistemaren intereraginkortasuna hobetzean datza.
- Hiritarrek Justiziaren Administrazioarekin baliabide elektronikoen bidez harremanetan jartzeko duten eskubidea bermatzea.
- Organo judizialean lanaren antolaketa hobetzea lortzea, bulego judizialaren eredu berriaren ezarpena errezatuz.
- Politika judizialeko erabakiak hartzea errezatuz.
- Bisten saletarako baliabide teknikoak hobetzea.

Eskumenak dauzkaten Autonomia Erkidegoetan sistema informatiko ezberdinak erabiltzen dira, honen ondorioz oso zaila egiten da, adibidez, Andaluzian auzi bat irekita duen akusatu batek Asturiasen beste auzi bat egiteko daukala egiaztatzea. Hori aldatu egin behar da. Sistema ezberdinen arteko bateragarritasun perfekturik gabe ia ezinezkoa izango da informazioa partekatu, azken finean, hau Justiziaren modernizazioa justifikatzen duen oinarritzko aldagaia izanik.



# Eskubideen Gutuna eta Gardentasun Judizialaren Plana

## Hiritarrekiko gizalegezkoagoa, gardenago, ulergarriago, den Justizia bat

Soilik ezagutzen dena maite da; ezezaguna dena ez da apreziatzen edo baztertu egiten da. Justiziaren Administrazioa hiritarrekiko ezagutua izatea eta beraiena moduan antzematea zerbitzu publiko honek aurrera eraman beharreko bisai garrantzitsuenetako bat da. Espainia guztian osatzen duten 50.000 funtzionarioen zati handi batek lan honetan paper garrantzitsua jokatu du.



### HELBURUAK

#### Hiritarrekiko gizalegezkoa den Justizia bat

Errespetuz atenditua izateko hiritarren **ESKUBIDEA BERMATZEA** eta beraien egoera psikologiko, sozial eta kulturaletara egokitua izatea (jarduera judizialen puntualtasuna, azalpenen errepikatzea ekiditea, zigorraren arazoak azaltzea...).

#### Justizia ulergarri bat

Jakinazpenak, zitazioak, deiak eta errekerimenduak hiritarrak ulertzea ahalbideratzen duen **HIZKERA ERABILTZEA**, baita ebazpen judizialen eta epaiketen edukia eta parte hartzen duten azaltzeak ulertzea ahalbideratzen duena.

#### Justizia garden bat

Organo judizialen funtzionamenduaren aspektu ezberdinei buruzko **HIRITARRAK informazioa jasotzea** **BERMATZEA** (legedia, prozeduren iraupena, lan zama...), baita eragiten dion prozeduraren egoera eta edukiarena ere.

#### Pertsona ahulei egokitutako justizia bat

**PERTSONA AHULENEK** (adin gutxikoak, delituen biktimak, inmigranteak, zentzumen, fisiko edo psikiko minusbalian duten pertsonak...) Justiziaren Administrazioaren aldetik beraien egoera berezira egokitutako tratua jaso behar dute, horrela beraien eskubideen zaintza judizial eraginkorra bermatuz.

#### Hiritarren izaera pertsonaleko datuen babesa

Epaitegi eta Auzitegien jardueran (artxibo judizialak, sistema informatikoak, epaiak...) eskubide hauen zaintza eraginkorra bermatzea. Aurreikusitako jardueren artean 1/2005 Araudian, Jarduera Judizialen Aspektu Osagarri buruzkoa, eginiko erreforma azpimarratu behar da.

### EKINTZAK

**Eskubideen Gutunaren eta Gardentasun Planaren eraginkortasunerako Jardueren Programa** BJKN-ren Hiritarren Arretarako Unitatearen esperientzia eta datuetatik eratorritako praktika egokien Katalogoak, Justiziaren Administrazioaren funtzionamenduari buruz hiritarrekiko kexa eta iradokizunen sistema hobetzea, web orrietako informazioak eta liburuxkak.

#### Justiziaren Kalitateari buruzko Foro Iraunkorra

Sistema judizialean beraien zerbitzuak eskeintzen dituzten pertsona, entitate profesional eta erakunde ezberdinen artean jardueren koordinazioa, lankidetzeta eta eztabaida ahalbideratzen duen leku baten sorrera.

#### Brasiliako 100 arauak ezartzeko Ekintza Plana

Brasilian onartutako arauak, 2008ko martxoan, ahultasun egoeran aurkitzen diren pertsonak Justiziara iristeari buruzkoa.



**HIRITARREN  
ESKUBIDEEN  
GUTUNA  
JUSTIZIAREN  
AURREAN**



**BJKN-ak Justiziaren Administrazioan zerbitzua eskeintzen dutenen lana sustatzea beharrezkoa dela kontsideratzen du. Baita jarduera judizialaren kontrol eta jarraipena egitea ahalbideratzen duten tresnak hobetzea. Honekin Epailearen independentzia indartzea, auzitegiaren eraginkortasuna hobetzea, eta hiritarrak Justiziara iristea bermatzea lortuko da.**

## **Organo judizialen jardueraren hobetze eta jarraipena**


**DISTANTZIKO IKUSKARITZA, ALARMA ETA DATU ESTADISTIKOAK DENBORA ERREALEAN.** Teknologia berrien erabilerak jarduera judizialaren jarraipena eta ikuskaritza hobetuko du. Ezinbestekotzat jotzen da Epaitegi eta Auzitegiek erabiltzen dituzten prozeduren kudeaketarako berezko aplikazioetan erregistratutako datuak informazio iturri diren eredu baten ezarpenean aurrera egitea, baina datu hauen bilketa hau bateratu egin behar da.

**PIZGARRIAK JARDUERA JUDIZIALARI.** Lanaren kalitatea sustatzea sarien, praktika egokien onarpenaren eta beste pizgarri batzuen bidez.



**Justiziaren KALITATEAREN EBALUAKETA PROGRAMA** eta Epaile eta Magistratuen jardueraren balorazioa (zenbat gai ebazten dituzten, nola ebazten diren, era honetara beraien eraginkortasuna eta ardura neurtuz).

**PROFESIONALITATEA AHALIK ETA GEHIEN SUSTATZEA,** ezinbesteko bitarteko izaerako kasuetan formazioa zainduz (Epaile, idazkari eta funtzionarioak), Justiziaren Administrazioako funtzionarioen lanpostu hutsak behar bezala gaitutako pertsonengatik automatikoki eta larrialdiz betetzeko prozedura egokiak ezarriz.



## Auzitan dagoena murriztea

1999tik, Espainiak auzitan dagoenaren hazkunde jarraia bizitu du, atxikitutako grafikan ikusten ahal den moduan.

Europar Batasunaren erreferentzia jarraituz, bere murrizketa ahalbideratu dezaketen formulak analizatzea beharrezkoa da, Justiziaren Administrazioan dauden baliabide urriak optimizatuz.

Honetarako, lege erreforma horien onarpena sustatzea beharrezkoa da, bai Zuzenbide Organikoaren esparruan baita prozesalean ere, Justiziaren modernizazio prozesuan sakontzeko ezinbestekoak direnak eta honela, Epaitegi eta Auzitegietan urtero bukatzen duten gaien zenbatekoa murriztea lortuko da.

## Organo eta prozedura erreformen sustapena Justiziari irtenbide arinagoak emateko



Ezkerreko grafikoak bitartekaritza penaleko prozedura baten azken fasea erakusten digu, zeinean biktima eta erasotzailea mahaian esertzen diren epailearekin, abokatu defendatzailearekin eta bitartekariarekin edo bitartekariarekin akordio batera iristeko. Bitartekaritza penalaren oinarria berrezarpen justizia da, zeinean biktimak azalpen eta konpentsazio bat jasotzen duen. Honen ordainetan, zigorrean epaileak legeak onartzen dizkion aringarriak ezartzen ditu. 2005tik aurrera, BJKN helduentzako Bitartekaritza Penalaren Proiektua garatzen ari da, zeinean Espainia osoko 30 organo judizialek parte hartzen duten.



## Bitartekaritza penal eta zibila, irtenbidea

Gure europar inguruko beste lurraldeen esperientzia jarraituz, bitartekaritzaren sustapena antzematen da, gatazken ebazpenean eraginkorra dela frogatu den tresna moduan, bi arrazoiengatik:

- **BITARTEKARITZA ALDERDIENTZAT POSITIBOA DA**, zeintzuk gatazkaren ebazpenaren protagonistak diren, akordioa libreki onartuz, bere baldintzen etorkizuneko betetzea boluntarioko erretuz; eta gatazkaren irtenbide azkar eta arinagoa lortzea suposatzen du.
- **BITARTEKARITZA SISTEMA JUDIZIALARENTZAT POSITIBOA DA**, Epaitegi eta Auzitegi lan zamaren murrizketa delako eta aldi berean, prozesu judizial batek beti eragiten dituen koste ikaragarriak aurrezteko lortzen delarik.

## Beste lege erreforma batzuk

- Epaiketa azkar zibilak.
- Prozesu penal berria.
- Instantzia bikoitz penala.
- Kasazio zibilaren erreforma.
- Europar Batasunaren arauetan erregulatutako prozedura zibilak.
- Erregistro Zibilen desjudizializazioa.
- Gatazka txikien ebazpenerako organo zehatzak.
- Estatutu aurreikuspenen garapena.



# Karrera judizialeko kideen estatutua

## Epaille eta Magistratuen Estatutua modernizatzea funtzio jurisdikzionalaren jarduera hiritarren alde hobetzeko

**EPAILE ETA MAGISTRATUEN IZENDAPENEI GARDENTASUN ETA BIZITASUN HANDIAGOA EMATEA.** Bai eskumenekoak direnak (Auzitegi Gorengo Magistratuak, Lehendakariak...) baita arau izaera dutenak (lanpostuak betetzeko ohizko erregimena).

**ORDEZKAPEN JUDIZIALEN SISTEMA ERAGINKOR ETA EGOKI BAT ERABAKITZEA,** epailé titularrei lehentasuna emanez; ordainketa erregimen bat egokituz ere.

**EPAILEEN ESPEZIALIZAZIO SISTEMAREN FUNTZIONAMENDUAREN ANALISIA,** hiritarrei erantzun judizial hobea emateko beharrezkoak diren aspektu horiek hobetuz.

**EPAILEEN HARREMANAK BJKN-REKIN ETA BOTERE JUDIZIALAREN BESTE GOBERNU ORGANOEKIN** (Justiziako Auzitegi Gorenen Gobernu Salak) HOBETZEA, egiten diren akordioen publikitate erregimen egokiago baten bidez, eta teknologia berriek sortutako abantailak erabiliz (sinadura digitala, Web tresnak, foru birtualak, espedienteen izapidetze digitala...).

**ELKARTE JUDIZIALEKIN HARREMANAK SENDOTZEA,** bereziki bere jarduera esparrua arautzen duen Araudi baten onarpenaren bidez.

**KARRERA JUDIZIAL BERAREN EGITURARI BURUZ HAUSNARTZEA** eta bertara sartzeko ereduari buruz ere bai.

- BJLO Erreformak:
  - Magistratura igotzeagatik derrigorrezko lekualdatzea kentzea.
  - Antolaketa jurisdikzional batean "segidan aurrekoa" den iraunkortasunetik eratorritako lehentasuna kentzea.
- "Epaille Ibiltari" en (ordezkapen eta errefortzuetako titularrak) erregulazioa).
- Karrera Judizialaren Araudiaren Erreforma.
  - Bizitza laborala, familiarra eta pertsonalaren adiskidetzear aurrera egiteko.
- Ordezkapenen erregimena erregulatzeko duen Argibide Berria, Justizia Ministerioari jarraiki.
- BJKN-ren eta Gobernu Salen aurrean idazkiak formatu digitalean aurkezteko erregimena.
- Elkartearen Araudiaren analisia.

- Espezializazioaren funtzionamenduaren erregimenaren berrikustea.
- Lan arriskuen prebentzio sistema.
- Adin edo ezintasunagatik jubilazio sistema hobetzea; ordainketa eta babes sozialeko beste aspektu batzuen egokitzea Epaillearengatik.
- Ordezkapen sistema berri baten aukerari buruzko hausnarketa.

- Karrera judiziala. Bere etorkizunerako garrantzitsuak diren elementuen analisia: sartzeko eredu, gaur egun existitzen diren kategoria profesionalak motak eta zenbatekoak, kategoria batetik besterako sustapenerako irizpideak, lanpostu zehatz batera iristeko kontutan eduki beharko ziren baldintza objektiboak (antzinatasuna eta beste batzuk).
- Barruti berdineko organo judizial unipersonalen funtzio egitura posible bati buruzko hausnarketa. Organo unipersonalen antolaketa berri posible baten abantaila eta desabantailak baloratzean datza, organo kolegiatuaren berezko funtzio antolaketaren antzekoa izango zena.

7

# Estatuaren lurralde antolaketa

## Gobernu Salak sustatzea, Justiziako Auzitegi Nagusi bakoitzaren lurraldean Botere Judzialaren gobernu organo gisa

- **BALIABIDE PERTSONAL ETA MATERIALEN ERREFORTZUA.**

- **GOBERNU KUDEAKETARAKO SISTEMA INFORMATIZATUA EZARTZEA, ZEINAK ESPEDIENTEEN IZAPIDETZE DIGITALA AHALBIDERATZEN DUEN.**

- Balearretan esperientzia pilotua (gaur egun) eta beste lau Justiziako Auzitegi Nagusitan (2009)
- Estatu osoan zabaltzea.

- **ESKUMEN ERREFORTZUA.**



Lerro hauen gainean, Kataluniako Justiziako Auzitegi Gorenaren sarrera nagusia, Espainian existitzen diren 17etarikoa bat. JAG-en Gobernu Salen lehiaketa Justiziaren Administrazioaren modernizazio prozesuan oinarritzkoa da, baita eskumenak dituzten Autonomia Erkidegoetako Justiziako Kontseilaritzak konpromezua ere.

## Justiziako gaian eskumenak dituzten Autonomia Erkidegoen parte hartze esparrua egokitzea

Autonomia Erkidegoen parte hartzea Justiziaren Administrazio sistemaren funtzionamendu egokirako gakoa da.

- **ESTATUTU AURREIKUSPENEN GARAPENA.**
- **LANKIDETZA, KOORDINAZIO ETA EZTABAIDA MEKANISMOEN EZARPENA.**




Berezko hizkuntza ofiziala duten Autonomia Erkidegoetan hiritarren eskubide linguistikoak bermatzea.

Eskualdeko edo Europako Kontseiluan gutxienez Hizkuntzen Europar Gutuna, 1992ko azaroaren 5an onartua Estrasburgon eta Espainiak 2001an berretsia





JUSTIZIAREN MODERNIZAZIORAKO BIDAI ORRIA



**BIDAI ORRI HONEK** 2008ko azaroaren 12an Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Bilkurak Madrilen onartua izan zen Justiziaren Modernizazio Planari erantzuten dio.

Justiziaren Administrazioan erakunde publiko ezberdinen ardurak elkartzen dira: BJKN, Justizia Ministerioa, eta gaian eskumenak dituzten Autonomia Erkidegoak.

Zentzu honetan, kontutan eduki behar da BJKN-ak ez duela aurrekontu eskumenik Justiziaren Administrazioaren zerbitzura lan egiten duen pertsonalaren eta baliabide materialen gainean. Eskumen horiek Justiziako Ministerioaren eta Autonomia Erkidegoen eskuetan daude, bakoitzari dagokion esparruan.

Justiziaren Modernizazio Plana onartu ostean, BJKN-ak modernizazio judizialaren prozesuan lagundu nahi du, ez soilik bere eskumenean aurkitzen diren neurriak hartuta baita beste organismo publikoei dagokien neurrien bidez ere, guzti hau eztabaida eraikitzaile, lankidetzeta eta egintzen koordinazio baten esparruan.